Usurbilgo Udala

USURBILGO SUTEGI LIBURUTEGIKO IRAKURKETA GELAREN BERRIKUNTZA GAUZATZEKO OBRA KONTRATUA

KONTRATATZEKO KLAUSULA TEKNIKOEN PLEGUA

PROZEDURA IREKIA ETA IZAPIDE ARRUNTA

I.-KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Baldintza hauetan oinarrituta egingo den kontratuaren xedea USURBILGO SUTEGI LIBURUTEGIKO IRAKURKETA GELAREN BERRIKUNTZA GAUZATZEKO OBRA KONTRATUA izango da, Daniel Carballo Ostolaza arkitektoak, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialeko kide denak, idatzitako Egikaritze Proiektuari jarraiki, kontratuzko izaera izango duena.

2. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren balio baloietsia 122.327,82 euro dira, BEZ kanpo, gehi %21 BEZ, 25.688,84 euro, hau da, guztira 148.016,66 euro.

Lizitatzaileak kontuan izan beharko du, segurtasunari eta osasunari buruz indarrean dagoen legediaren arabera eta eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/97 Errege Dekretuaren arabera, segurtasunari eta osasunari dagokien aurrekontua, azterlanaren aurrekontuan zehaztu ez diren alderdietan, aurrekontua osatzen duten obra-unitateen unitate-prezioetan sartuta dagoela jotzen dela.

Kontratua gauzatzen hasi aurretik, kontratista esleipendunak Segurtasun eta Osasun Plan bat egingo du, proiektuan jasotako Segurtasun eta Osasunari buruzko Oinarrizko Azterlanean oinarrituta. Plan horrek Oinarrizko Azterlanean jasotako aurreikuspenak aztertu, garatu eta osatuko ditu, gauzatu beharreko eraikuntza-obrei egokituz eta betiere bere egikaritze-sistemaren arabera. Plana, obra egin bitartean segurtasunaren eta osasunaren koordinatzailearen txostenarekin batera, Udalean aurkeztuko da, onar dezan.

Era berean, hondakinen ekoizpenaren eta kudeaketaren arloan indarrean dagoen legeria kontuan hartuta (105/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituena), kontratua gauzatzen hasi aurretik, kontratista esleipendunak plan bat aurkeztu beharko dio jabeari, eraikuntza- eta eraispen-hondakinekin lotuta dagozkion betebeharrak nola gauzatuko dituen azaltzeko.

Plana, obra-zuzendaritzak onartu eta jabeak onartu ondoren, obraren kontratu-dokumentuetan sartuko da.

3. EGIKARITZE EPEA

Kokalekua eta egikaritze epea hauek dira:

Kokalekua Sutegi Liburutegia. Irazu kalea 14, Usurbil.

Egikaritze epea 3 hilabete gehienez.

Kontratua gauzatzeko epea zuinketa egiaztatzeko aktarekin hasiko da. Abuztua ere lan-hilabetea izango da.

Nolanahi ere, zuinketa-akta sinatu aurretik, enpresa esleipendunak proposatutako programa udaltzaingoarekin, udal-zerbitzu teknikoekin, obra-zuzendaritzarekin eta eraikuntza-enpresarekin adostu beharko da.

Obrak irauten duen bitartean kontratua etetea erabakitzen bada, dagokion akta egingo da eta obrak eteteko eta berriz hasteko erabakiak hartuko dira.

Kontratista berandutze-egoeran dagoela ulertuko da aipatutako epea igarotzeagatik, eta ez da beharrezkoa izango Administrazioak aldez aurretik agintzea.

4. BITARTEKO LAGUNTZAILEAK, SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Enpresa esleipendunak obrak kontratuan adostutako epeetan behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren makineria eta bitarteko laguntzaileak jarri beharko ditu bertan.

Edozein obra-unitate behar bezala gauzatzeko eta amaitzeko beharrezkoak diren lan, bitarteko laguntzaile eta material guztiak, bai eta laneko segurtasun- eta osasun-unitate edo -elementu guztiak ere, prezioan sartuta daudela ulertuko da, nahiz eta horiek guztiak ez agertu prezioen deskonposizioan edo deskribapenean.

Lehen adierazi bezala, obrak hasi aurretik, kontratista esleipendunak Segurtasun eta Osasun Plan bat egingo du, proiektuan jasotako Segurtasun eta Osasunari buruzko oinarrizko Azterlanean oinarrituta. Plan horrek azterlanean jasotako aurreikuspenak aztertu, garatu eta osatuko ditu, gauzatu beharreko obra-jarduketa zehatzetara egokituz eta, betiere, bere egikaritze-sistemaren arabera.

Bestalde, ez da onartuko obraren aurrekontu orokorrean sartuta ez dagoen, eta materialen sarbide, garraio eta zamalanekin erlazionatutako aparteko partidarik, obra-unitateen prezio unitarioetan sartuta daudela jotzen baita.

5. OBRARA ESLEITUTAKO LANGILEAK: OBRA BURUA ETA OBRA ENKARGATUA

Lizitatzaileak Obra Burua izendatu beharko du: obrako eraikuntzaren ordezkaritza teknikoa beregain hartuko duena, kontratistaren ordezkaria izango dena eta Udalak izendatzen duen Kontratuaren Arduradunarekin hartuemana izango duena.

Obra Buruaren ikasketa maila ondoren aipatzen denen artean egongo da: Arkitektoa, Arkitekto Teknikoa, Eraikuntzen Ingeniari Teknikoa, Goi Mailako edo Teknikoko Ingeniaria.
Era berean, %100eko dedikazioa eta obran etengabeko presentzia duen Obra Enkargatua egongo da; zeina uneoro egongo den Obra Zuzendaritzaren eta Udalak izendatutako Kontratuko Arduradunaren esanetara.

Esleipendunak kontratuaren prozesu osoan talde tekniko bera mantentzen saiatzeko konpromisoa hartzen du. Kontratuko faseren batean taldeko teknikariren bat ordeztuz gero, pertsona berriak eskaintzan adierazitako titulazio, ardura, funtzio eta dedikazioekin alderagarriak diren ezaugarri profesionalak izan beharko ditu gutxienez. Edozein kasutan, ordezpena aldez aurretik Udalak berariaz onartu beharko du, betekizunak betetzen direla egiaztatu ostean.

6. AZPIKONTRATISTAK ETA HORNITZAILEAK

Kontratista behartuta egongo da bilera bat egitera azpikontratatutako enpresa instalatzaile bakoitzarekin, obra zuzendaritzarekin eta udal teknikariekin, edozein instalazio edota azpikontratatu behar den obraren edozein zati egikaritu baino lehen. Azpikontratatutako enpresa horiek aldatzeko, Udalaren berariazko baimena izan beharko da.

7. OBRAKO BISITAK

Obrako bisitak Udalak izendatutako Kontratuko Arduradunak beharrezkotzat jotzen duen bakoitzean egingo dira, eta gutxienez astean behin. Obra Zuzendaritzako teknikariak, Obrako Burua eta udal teknikariak bertaratuko dira derrigorrez horietara.

8. PROIEKTUA GAUZATZEKO BEHAR DIREN BAIMENAK

Obrako zuzendariak, beharrezko jotzen duenean, obrako zati ezberdinei, egikaritze plan zehatuari edo planoak egiteari eta kalkulu osagarriei buruzko azalpenak eska ditzake, obrak egikaritu baino lehen eta onartzeko, izan ere, hori gabe ezingo dira egin.

Obrako zuzendariak kontratistak lan-programa behar bezala aurkeztu arte ziurtagiriak ez bideratzea erabaki dezake, hala badagokio, ziurtagiri horien ordainketan atzeratzearen ondoriozko berandutza-interesen eskubiderik gabe

9. OBRAKO ITXURA ETA SEINALEZTAPENA

Esleipendunaren ardura izango da obra behar bezala itxi eta seinaleztatzea; horretako, seinaleztapena behar bezala burutzen dela bermatzeko materiala eta seinaleztapenean adituak diren langileak izango ditu.

Kontuan hartu beharko da obrak bateragarriak izango direla lan horien eraginpean ez dauden liburutegiko eremuen jarduerarekin, eta, horretarako, beharrezkoak diren itxiturak egingo dira.

Esleipenduna behartuta dago obra inguruko oinezkoen zirkulazioa segurtasun baldintza egokietan mantentzera; horrek oinezkoen eta obrako langileen segurtasuna uneoro bermatzeko seinale bertikal edota horizontalari zein informazio-kartelei eta –errotuluei dagokienez arauzko neurriak hartzea eskatuko du. Halaber, bide segurtasun arrazoien ondorioz galtzada eta espaloiak garbitu egingo dira.

Obren ondorioz ipintzen diren errotulu eta seinaleztapenak piktograma bidez egingo dira. Beharrezkotzat jotzen denean, piktogramaren alboan azalpen testu bat idatziko da, euskaraz. Piktograma bat erabiliz egin ezin baldin bada, euskaraz egingo dira mezu ezagun eta ulergarriak direnean. Aurreko bi kasuak ezinezkoak baldin badira, elebitan egingo da, euskarari lehentasuna emanez, aldez aurretik administrazioak hala baimenduta.

10. ESLEIPENDUNAREN BESTE BETEBEHAR BATZUK

Obrek hiri-altzarien, argien, lorezaintzaren, zoladuraren edo urbanizazioa osatzen duten beste elementu batzuen birjarpenari edo aldaketari eragiten badiote, horiek obran jarri aurretik, Udaleko Zerbitzu Teknikoen adostasuna lortu beharko da.

Udalak obrak jaso aurretik, kontratistak agiri hauek aurkeztuko dizkio, gutxienez, obra-zuzendaritzari:

- Gauzatutako instalazioen proiektuak eta buletin bisatuak eta legeztatuak, hala badagokio.
- Hala badagokio, instalazioen mantentze-lanetarako kontratuak (aireztapena, suteen aurkako neurriak, etab.), jabetzak onar ditzan, harrerako altak kudeatu ahal izateko behar besteko aurrerapenarekin.
- Kontsumitzaile eta erabiltzaileen araudia betetzeko, edo obra-zuzendaritza berak adierazi edo eskatutako material guztien dokumentazio teknikoa eta bermea, markak, ereduak, katalogoa, tokiko hornitzailea eta mantentze-baldintzak identifikatuta.
- Obrako hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duten ziurtagiriak.
- Obra egin bitartean azpikontratatutako eta hornitutako enpresen zerrenda, dagozkien arduradunekin eta harremanetarako bideekin.

11. INGURUMEN ZIURTAGIRIAK

Erabilitako zur eta zurezko produktu guztiek (barnean direla zur-zuntzezko erakusmahaiak, kontratxapatuak, DM eta antzeko beste produktu batzuk) baso-ustiapen jasangarrien jatorri-bermeak izan beharko dituzte. Berme horiek baso-kudeaketa jasangarriaren ziurtagiriaren bidez egiazta daitezke, FSC edo PEFC ziurtapen-sistemen edo beste ziurtapen-sistema baliokide baten arabera.

II. LIZITATZAILEEN PROPOSAMENEN EZAUGARRIAK

12. PROIEKTU TEKNIKOAREN AZTERKETA ETA OBRAREN ORGANIZAZIO PROGRAMA

Enpresa lizitatzaileak, “B” artxibo elektronikoan, ”balioespen tekniko baten baitakoak” izena duena, "memoria teknikoa” aurkeztu beharko du, behar bezala orrikatuta, dagokion aurkibidearekin, aurrerago zehaztutako atalak zerrendatuz. Honako zati hauek izango ditu: memoria teknikoa, gauzatze lanen programa

eta proposatutako hobekuntza teknikoak eta ingurumenekoak.

12.1.- MEMORIA TEKNIKOA (0-13 puntu)

Lanen gauzatze proposamen orokorraren planteamendu argia egitea eskatzen da azterketa honekin. Obraren zailtasunak aipatu, deskribatu eta estudiatuko dira. Halaber, obraren gauzatze lanek sortu ditzakeen eragin eta interferentziak aztertuko dira eta beraien arteko erlazioa. Esleitu lanetarako deskribaturikoa zuzena, zehatza, arrazoitua eta egokia dela baloratuko da:

- Proiektuaren analisia: gauzatze lanen deskripzio orokorra nola gauzatuko diren eta lanen ordena eta proposamenak arrazoituaz (6,5 puntu).

- Obraren zailtasun nagusiak identifikatzea puntu kritikoak definituaz eta zailtasunen aurrean hartuko diren jarraibideak azalduaz eta arrazoituaz (6,5 puntu).

12.2.- GAUZATZE LANEN PROGRAMA(0-10 puntu)

- Lanen gauzatze planteamendu espezifikoa. Kontutan hartuko da obraren ezagutza eta antolakuntza (4 puntu).

- Gehienez 3 hilabeteko epea betetzeko erabiliko den planifikazioa , epe partzialak eta hauek betetzeko baliabideak. Obra atzerapenak berreskuratu eta gauzatze epea eguneratzeko baliabideak. Obraren planifikazioaren jarraipena errazteko baliabide edo metodologia (3 puntu).

- Proiektuan izan litezkeen akats edo zehazgabetasunak identifikatzea eta hauek zuzentzeko proposamenak (3 puntu).

12.3.-PROPOSATUTAKO HOBEKUNTZA TEKNIKOAK ETA INGUMENEKOAK (0-2 puntu)

- Hobekuntzak obraren gauzatzean segurtasun faktorea handituko duena (1 puntu).

- Hobekuntza teknikoa esleitutako azpiegituraren amaierako kalitatea hobetuko duena (1 puntu).

Memoriak gehienez A4 formatuko 10 orri izango ditu. Bi aldeetatik idatziak Arial 11 hizkiarekin; azalak, aurkibideak, argazkiak eta antolakuntza eskemek ez dute orri idatzi lez kontatuko.

Baldin eta aurkeztutako “memoria teknikoa” dokumentuak gainditzen badu, oro har,adierazitako orrialde kopurua, memoriari dagozkion balioespen-irizpideak orri kopuruaren mugara arte soilik balioetsiko dira. Orrialde kopuru horretatik aurrera 0 puntu emango dira.